

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZARATAMOKO UDALAREN 2017-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak joan den urtarrilaren 29an aho batez onartu zuen Zaratomoko Udalaren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz ezin ondoriorik eskuratu izan dugun Udalaren Balantzeko Ibilgetu ez finantzarioaren saldoen gainean, zeinetarako ez baita dagokion zuzkidura erregistratu. Gainera, Udalak ez dizkigu eskuratu 2017ko abenduaren 31n ebazteko dauden erreklamazio, epai edo auzi guztien xehakapena, zeinetatik obligazio edo pasibo kontingenteak erator bailitezke.

Udalak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzailetzak jaulkitako txostenaren arabera, 2017an aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren araua bete dela.

Udalak zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren Kontratazioaren atalean (prozedurarik eza argindarraren hornidura kontratuan eta kontratu baten luzapena gehienezko indarraldia gaindituta).